

Prentsarako txostena

Ruth Asawa

Atzerabegirakoa



Martxoak 19 – irailak 13, 2026

Ruth Asawa: Atzerabegirakoa San Francisco Museum of Modern Art (SFMOMA) eta New Yorkeko Museum of Modern Art (MoMA) erakundeek antolatutako erakusketa da. Bilboko erakustaldia Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan egina da.

Ruth Asawa: Atzerabegirakoa

- Datak: 2026ko martxoaren 19tik irailaren 13ra
 - *Ruth Asawa: Atzerabegirakoa* San Francisco Museum of Modern Art (SFMOMA) eta New Yorkeko Museum of Modern Art (MoMA) erakundeek antolatutako erakusketa da. Aurkezpen hau Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan egingo da.
 - Komisarioak: Janet Bishop, 'Thomas Weisel Family' Arte-arduradun nagusia, SFMOMA, eta Cara Manes, Arte-arduradun elkartua, Pintura eta Eskultura Departamentua, MoMA; laguntzaile izan dute Geaninne Gutierrez-Guimarães, Arte-arduraduna, Guggenheim Bilbao Museoa
-
- Erakusketan Ruth Asawak alanbre kiribilduz egindako eskultura ezagunak bildu dira, bai eta alanbre lotuz egindako lanak eta naturan inspiratuak, buztin eta brontze urtuzko piezak, papiroflexiak, pinturak, marrazkiak, zirriborro-koadernoak eta grabatuak ere, 1947 eta 2006 bitartean eginak.
 - Asawaren obrak abstrakzioaren eta figurazioaren, irudiaren eta hondoaren, eta espazio positiboaren eta negatiboaren arteko bereizketak gaituzten ditu eta, ingurunearekin interakzioan dauden konposizioetan elementu oso heterogeneoak elkarren artean nola erlazionatzen diren behatzera gonbidatzen gaitu.
 - 1950eko hamarkadaren hasieran Asawak aukera berriak etengabe bilatzeari ekin zion bere lanerako aukeratutako prozesuen barruan eta horrek bere motibo eskultoriko bereizgarriena ekarri zuen emaitzaz: "formaren baitako forma jarraitua", artistak "aldi berean barruan eta kanpoan dagoen forma" gisa azalduakoa.
 - Asawak alanbre lotuz egindako piezen abiapuntua lore-zentro bat zen, izar-itxurakoa edo geometrikoa; landu ahala eta forma progresiboki kanporantz hazi ahala, artistak materialaren propietateei erantzuten zien eta "alanbreak agintzen duenari" jarraitzen zion, mundu naturalaren hazkunde-ereduak errepikatzeke.

Guggenheim Bilbao Museoak atsegin handiz aurkezten du *Ruth Asawa: Atzerabegirakoa*, Ruth Aiko Asawa (Norwalk, Kalifornia, AEB, 1926–San Frantzisko, Kalifornia, AEB, 2013) artista ospetsuari bere jaiotzaren mendeurrenean eskainitako erakusketa handia.

Bigarren Mundu Gerraren ondotik AEBk eman zuen artista dohatsu eta emankorrenetako bat izan zen Asawa. Azken hamarkadan bere obraren garrantzia zabal aitortua izan bada ere, atzerabegirako hau izango da museo batean sortzaile honen ekoizpen bikain, askotariko eta berritzailearen alderdi guztiak sakonetik aztertuko dituen lehen erakusketa handia.

Sei hamarkadako ibilbidea jorratzen duten hamar ataletan zehar, erakusketa honek figura enblematiko baten lan berritzailea zeharkatzen du bere zabaltasunean eta sakontasunean. Ruth Aiko Asawak (Norwalk, Kalifornia, 1926—San Frantzisko, Kalifornia, 2013) bere bizitzako alderdi guztietan integratu zuen bere sormen-lana, artista, hezitzaile eta arteen defendatzaile gisa. Erlazio hori irudikatzeko, argazkiak eta dokumentuak aukeratu dira, ikusgai dauden lanekin bat datozenak, besteak beste: alanbre kiribilduz egindako eskultura eseki ezagunenak, naturan inspiratuta alanbre lotuz egindako piezak, buztinezko eta brontzezko moldeak, papiroflexiako piezak, pinturak, marrazkiak, zirriborro-koadernoak eta grabatuak.

Abstrakzioaren eta figurazioaren, irudiaren eta hondoaren, eta espazio positiboaren eta negatiboaren arteko bereizketak gaindituz, ingurunearekin interakzioan dauden konposizioetan elementu oso heterogeneoak elkarren artean nola erlazionatzen diren behatzera gonbidatzen gaitu Asawaren obrak.

Asawak AEBra emigratutako nekazari japoniarrak zituen gurasoak eta zazpi anaia-arrebetatik laugarrena zen bera. Bigarren Mundu Gerran, haien jatorri japoniarra zela eta, Estatu Batuetako gobernuak barneratze-esparruetan sartu zituen Asawa nerabea eta bere familia. 1946an, japoniarren aurkako aurreiritziak zirela eta, artea irakasteko gaitzen zuen bere unibertsitate-titulua ukatua izan ondoren, Asawa Black Mountain Collegen matrikulatu zen, Ipar Carolinako hezkuntza-erakunde aurrerakoian. Eskola hartako giro demokratikoan Asawak ekindako ibilbide sortzailea esperimentazioan eta lan gogorraren balioan oinarritu zen. Black Mountainen egin zuen egonaldiaren ondoren, 1949an San Frantziskon ezarri eta bere bizitzaren azkenera arte, Asawak parametro batzuk finkatu zituen bere jardun artistikoan, gardentasunaren, jarraitutasunaren eta espazioaren ideiak ikertzeko aukera eman ziotenak. 1960ko hamarkadan bere ibilbidea zabaltzeko eta zuzenean inplikatu zuen bere komunitatea, enkargu publikoen, arte-hezkuntzaren eta balio zibikoen defentsaren bidez.

Ruth Asawa: Atzerabegirakoa San Francisco Museum of Modern Art (SFMOMA) eta New Yorkeko Museum of Modern Art (MoMA) erakundeek antolatutako erakusketa da. Nazioarteko itinerantziaren babeslea: The Henry Luce Foundation.

SFMOMAn, MoMAN eta Guggenheim Bilbao Museoan aurkeztu ondoren, erakusketa Fondation Beyelerrena (Riehen/Basilea) joango da. Erakusketaren nazioarteko ibiltaritza The Henry Luce Foundationen lankidetzari esker gauzatu ahal izan da.

ERAKUSKETAREN IBILBIDEA

“Ikusten ikasli”: Black Mountain College, 1940ko hamarkada

Bere ibilbide artistikoaren etapa guztietan zehar eta hainbat euskarriren bidez, Ruth Asawak jarraitutasuna, gardentasuna eta itxuraz kontraesankorrak diren kontzeptuen trukagarritasuna aztertzen zituen, besteak beste, irudiaren eta hondoaren, edo abstrakzioaren eta figurazioaren artean. Funtsezko ideia horiek Black Mountain Collegen (BMC) garatu zituen lehen aldiz. Asawa 1946 eta 1949 bitartean ikasle izandako diziplina anitzeko eskola horretako ikasketa-plana esperientzia sentsozialean eta materialekin egindako lanean oinarritzen zen. Han, matematika, filosofia, musika eta dantzako eskolak jaso zituen. Gainera, Josef Albers izan zuen bertan arte-irakasle, eta harengandik ikasi zuen “ikusten”, geroago Asawak berak esan bezala.

Titulurik gabea (BMC.52, Dantzariak) [*Untitled* (BMC.52, Dancers)], ca. 1948–49 lanak irudi dantzari abstraktu bat aurkezten du, Asawak BMCko bere azken urtean Merce Cunningham eta Elizabeth Schmitt Jennerjahn irakasleengandik hartu zituen dantza-eskoletan inspiratua. Hondo hori baten gainean forma biribilduko hainbat geruzaz osatutako lana da, eta artistak 1950eko hamarkadan sortutako alanbrezko eskulturen aitzindaria da. Atal honetan ikusgai dauden Asawaren lehen marrazki, pintura eta alanbrezko lanek, besteak beste, forma naturalak eta eredu matematikoak dituzte inspirazio-iturri. 1947an, Asawak bidaia bat egin zuen Mexikora, eta erabakigarria izan zen han aurkitu zuena: alanbrezko saskiak. Izan ere, saski haiek lantzeko teknikak bereganatu eta inflexio-puntu bat izan ziren bere lanean. 1949an BMC utzi aurretik, funtsezko zerbaitez ohartu zen: “Saski batean lanean jarraitu nuen forma itxi bat eman arte, eta, pixkanaka, teknika eta materiala kontrolatzen ikasi bitartean, eskultura egiteko modu horren ahalmen zirrargarriaz jabetzen hasi nintzen”.

Diseinu komertzialak, 1950eko hamarkadaren hasiera

1950eko hamarkadaren hasieran, Ruth Asawa dantza, diseinu komertzial, errotulazio, serigrafia eta pinturako eskoletara joaten zen, San Francisco State Collegen (gaur egun San Francisco State University). Urte haietan, bere lanak agerikotasuna lortzen jarraitu zuen maila lokalean eta nazionalean, Laverne Originals barne-diseinuko enpresak San Frantziskon eta New Yorken zituen aretoetan Asawak egindako erakusketei eta *Vogue* bezalako argitalpenetan agertu izanari esker.

Garai hartan, Asawak hainbat diseinu egin zituen produktu komertzialetarako, besteak beste, papiroflexiako bere piezetan oinarritutako plastikozko panelak, edo paper pintatuetarako eta ehunetarako estanpatuak, besteak beste, motibo hauek erabilia: espiral logaritmikoen formak, Black Mountain Collegeko (BMC) garbitegiko zigilua, eta bere seme-alaba txikien oinatzak. Laverne Originalsek Asawa gonbidatu zuen alanbre kiribilduz egindako saskien sail bat ekoiztera, etxerako apaingarri gisa, baina artistak uko egin zion proposamenari, honako hau adieraziz: “Saltzeko ekoiztea interesatzen zait, baina, lanean ari naizela, ideia gehiago bururatzen zaizkit eta esperimentatu nahi dut, eta esperimentatzea ez da ekoiztea, beti baitago huts egindako saialdi ugari”.

“Dena dago lotuta”: Formen baitako formak, 1950eko hamarkada

“Eskultura hauek alanbre jarraituarekin eginak daude [...], modu gardenean biltzen ditu bolumenak [...] eta formen baitako formak sortzen ditu. [...] Alanbreak jarraitua izan behar du, eta konfigurazio barne-hutsek modu horretan hazten diren konfigurazioak baino ezin dute izan”.

—Ruth Asawa

1949an, Ruth Asawa San Frantziskora joan zen bizitzera. Kalifornian arrazen arteko ezkontzak debekatzen zituzten legeak indargabetu ondoren, Albert Lanierrekin ezkondu zen, arkitektoa eta Black Mountainen ikaskide izandakoa, eta elkarrekin familia bat osatu zuten. Aldi berean, Asawa bere ibilbide artistikoa sendotzen hasi zen, eta sakonetik ekin zion formen eraikuntzarekin esperimentatzeari, bai espazioan, alanbre kiribilduz egindako eskulturen bidez, bai planoan, marrazki eta grabatuen bitartez.



Asawak lanerako aukeratutako prozesuen barruan aukera berriak etengabe bilatzen aritzeak bere motibo eskultoriko bereizgarriena ekarri zuen emaitzaz: “formaren baitako forma jarraitua”, artistak honela azaldu zuena: “aldi berean barruan eta kanpoan dagoen forma bat”. Lobulu bakar batean, esferen sekuentzia batek, barnean elkar hartuta, etenik gabeko azalera sortzen du. Atal honetan aurkezten diren lanen artean daude *Titulurik gabea* (S.427, Bost geruzako formaren baitako forma jarraitu, eseki, lobulubakarra) [*Untitled* (S.427, Hanging Single-Lobed, Five-Layered Continuous Form within a Form)], 1953, eta *Titulurik gabea* (S.797, Hiru geruzako formaren baitako forma jarraitu, eseki, bi lobuluduna) [*Untitled* (S.797, Hanging Two-Lobed, Three-Layered Continuous Form within a Form)], ca. 1954. Asawak gai hau garatzen jarraitu zuen hurrengo hamarkadetan, jarraitasuna bere lanaren ardatz egituratzaile gisa finkatuta. “Barnealdea eta kanpoaldea erakuts daitezke, eta barnealdea eta kanpoaldea konektatuta daude —zioen—. Dena lotuta dago, jarraitua da”.

“Nire eskulturaren hiztegia”

“Obrak agintzen du hazteko modua, eta, hazteko modu horri buruz zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta aukera gehiago irekitzen dira prozesu horretako eskultura espezifiko bat sortzeko”.

—Ruth Asawa

Atal honetan ikusgai dauden lanek Ruth Asawak 1950eko hamarkadan zehar asmatutako forma eskultorikoen erreperitorio zabalaren zati bat erakusten dute, kiribilak eginez lantzen zuen alanbre industrialarekin egindakoak. 1955ean, “nire eskulturaren hiztegia” deitu zien artistak. Forma horiek elkarri gainjartzen dira, bata bestearen barruan habia egiten dute, elkar lotzen dira, uhinak eratzen dituzte, eta hedatu egiten dira katean; horrela, azalera jarraituak sortzen dira, eta hauek bolumena zedarritzatzen dute, inguruko espazioan sartzeari utzi gabe. Egitura konposatuak simetrikoak eta orekatuak izan arren, konfigurazio horien aurrean ikusten ari garena aldatu egin daiteke behaketa-puntuaren eta beste obra batzuekiko hurbiltasunaren arabera.

Asawak alanbre kiribilduaren teknika erabili zuen “berez bere baitan forma eta bolumena izango zituen eskultura bat sortzeko, eta bere siluetak ere bolumena izango zuena; baita beren itzalak ere bolumena izango zuen eskulturak ere”. Atal honetako lan gehienak artistak berak aukeratu zituen 1950eko hamarkadan New Yorkeko Peridot Galleryn egin zitzaizkion erakusketa indibidualetarako, bere lana publiko zabalago baten artean ezagutzera eman zutenak. Multzotzat hartuta, eskultura hauek agerian uzten dute errepikapenak bere jardun artistikoan duen garrantzia. Hemen aurkezten diren lanen artean dago *Titulurik gabea* (S.270, Lehenengo eta bigarren lobuluetan esferak dituen formaren baitako forma jarraitu, eseki, elkarlotu, sei lobuluduna) [*Untitled* (S.270, Hanging Six-Lobed, Interlocking Continuous Form within a Form with Spheres in the First and Second Lobes)], 1955, 1957–58an berriz ekoitzia. Lan horrek lobulu konektatu ugari ditu silueta eskultoriko luzeak osatzen; aitzitik, barnealdeko elementuek, besteak beste, konoek eta esferak, elkarri gainjarritako geruzak sortzen dituzte.

Tamarindeko grabatuak, 1965

1960an, June Waynek Tamarind etorbidean (Los Angeles) Tamarind Lithography Workshop ireki zuen, AEBko litografia artistikoaren aukerak nabarmen zabaltzen lagundu zuen tailerra. Ruth Asawa bertan bi hilabeteko egonaldia egitera gonbidatu zuten 1965ean, bere irakasle ohi Josef Albersek proposatuta, tailer hartan bertan

egin izan zituenak estanpazioak. Tamarindeko egonaldi labur hartan, Asawa zazpi inprimatzailerekin lankidetzan estuan aritu zen, eta berrogeita hamalau estampa erabat esperimental sortu zituen —bere senideen, loreen, platano arrunten eta aulkien grabatuak— baita abstrakzioak ere.

Horietako batzuk atal honetan agertzen dira, tartean *Mitxoleta* (TAM.1479) [*Poppy* (TAM.1479)], 1965, Kaliforniako estatuaren ikur den lore delikatu horren trebetasun handiko irudikapena. Nahiz eta uda haren amaieratik udazkenaren hasierara arte Tamarindeko bere egonaldiaren ondoren Asawa ez zen berriro intentsitate berarekin grabatugintzan aritu, konbikzio osoa zuen baliabide horren balioaz, eta gaitzetsi egin zuen “artisautza eta grabatua pintura eta eskultura baino garrantzi gutxiagokoak direla dioten mitoa”, bai eta baieztatu ere “lan on bat garrantzitsua da, bere kategoria edozein dela ere”.

Natura, alanbre lotua eta ondorengo eskultura, 1960 – 1990 hamarkadak

“Natura nire irakaslea da, eta, haren hazkunde-ereduak aztertzeke, gure XX. mendearen emaitza diren produktuak erabili ditut”.

—Ruth Asawa

1962an, Heriotzaren Haraneko basamortutik ekarritako landare lehor baten opariak bultzatu zuen Ruth Asawa bere eskultura-lanean norabide berri bati ekitera. Landare hura marrazten saiatzean, honetaz ohartu zen: “bere konplexutasunak [...] ezinezko egiten zuen”. Hortaz, berriro saiatu zen, alanbreaz baliatuta, sortak eta bobinak manipulatu adar konplexuak eta beste forma botaniko batzuk sortzen; horren erakusgarri dugu *Titulurik gabea* (S.184, Naturan oinarritutako, alanbre lotuz egindako, zurtoin bakarreko forma eseki adar aniztuna) [*Untitled* (S.184, Hanging Tied-Wire, Single-Stem, Multi-Branched Form Based on Nature)], ca. 1962. Hamarkada horretan eta ondorengo urteetan, Asawak “alanbre lotuz egindako” eskulturak garatu zituen. Bere azalpenen arabera: lan haiek “alanbrea bezalako material inpersonak batetik abiatzen dira; oso material gogorra da, eta bigun bihurtu eta itxura naturala ematen diote. Beraz, alanbre zati abstraktu bat hartu eta landare bihurtu daiteke. Eta atsegin dut gogorretik bigunerako trantsizio hori”.

Asawak alanbre lotuz egindako piezak lore-zentro bat zuten abiapuntutzat, izar-itxurakoa edo geometrikoa; horren erakusgarri dugu *Titulurik gabea* (S.451, Naturan oinarritutako, alanbre lotuz egindako, erdigune irekidun hormarako forma sei adarduna) [*Untitled* (S.451, Wall-Mounted Tied-Wire, Open-Center, Six-Branched Form Based on Nature)], ca. 1965. Piezak landu ahala eta forma progresiboki kanporantz hazi ahala, artistak materialaren propietateei erantzuten zien eta “alanbreak agintzen duenari” jarraitzen zion, mundu naturalaren hazkunde-ereduak errepikatzeke. Bere eskultura zintzilikariek eta muralek marrazketari berriro heltzera eramane zuten Asawa, eta, marrazkiekin, alanbrezko lanekin bezala, aukera berriak aurkitu zituen diseinu geometrikoak, loratze etereoak eta zuhaitz-adarrak irudikatuta; horren erakusgarri dugu *Titulurik gabea* (SD.017, Erdian pentagono irekia duen alanbre lotuz egindako eskulturaren marrazkia) [*Untitled* (SD.017, Tied-Wire Sculpture Drawing with Open Pentagon in Center)] ca. 1980ko hamarkada–1990eko hamarkadaren erdialdea.

1970eko hamarkadan eta geroago, Asawak “materialen mugak, hazkundera eta forma aztertzen jarraitu zuen, eskulturak alanbrearekin sortuta”. Alanbre kiribilbuz eta alanbre lotuz egindako konposizioen aldaera berriak asmatu ahala —batzuk itxiak eta beste batzuk irekiak, batzuk goian esekiak eta beste batzuk hormatik zintzilik— erretxinaren ikerketan ere sakondu zuen material gisa, eta koloretako beirarekin esperimentatu

zuen.

Arte eta enkargu publikoak, 1960–1990 hamarkadak

1968an, Ruth Asawa arteak gizartean zuen zeregina aktiboki defendatzen hasi zen, San Frantziskoko Arteen Batzordean, Kaliforniako Arteen Kontseiluan eta Arteen Funts Nazionalen bete zituen karguen bitartez. Aldi berean, bere jardun artistikoa San Frantziskoko eremu komunitariora zabaltzeko zuen arte publikoko obren eta enkarguen bidez, “mundu guztiak gozatu ahal izango zuen eskultura bat egiteko” helburuz. Obra horiek, askotan lankidetzan eginak, topaleku bihurtu ziren, memoriarako eta komunitatean ospatzeko proposak.

Kanpoaldeko espazio baterako egin zuen lehen enkargua *Andrea* (1968) brontzezko iturria izan zen, San Frantziskoko Ghirardelli Squaren kokatua. Itsasoa aurrean zuen kokalekuarekin bat etorriz, igelez eta dortokez inguratutako bi sirenaren eskultura bat sortu zuen Asawak, horietako bat haurtxo bati eusten.

“Haur guztiengan pentsatu nuen, eta, agian, heldu batzuegan ere bai, itsasertzaren ondoan dortoka edo sirena bat noiz agertuko zain”, azaldu zuen. Sirenen bustoa bere lagun Andrea Jepsonen naturaleko molde batetik abiatuta egin zuen; eta, isatsetarako alanbre kiribilduz egindako forma bat urtu zuen brontzez; atal honetan erakusten da bere prestaketa-estudioa.

Formatu handiko beste lan batzuk *Origami-iturriak* (*Origami Fountains*, 1975–76) dira, San Frantziskoko japoniar auzoko (Nihonmachi) oinezkoentzako pasealekurako pentsatuak. Lan horiek origamiarekiko eta paperaren tolesturarekiko bere interes iraunkorrean sakontzen dute. 1994an, Asawak bere *Japoniar-estatubatuarrentzako barneratze-esparruen oroimen-monumentua* (*Japanese American Internment Memorial*) kolosala aurkeztu zuen, San Joseko Udalaren enkargua. Bere seme Paul Lanierrekin eta Nancy Thompson artistarekin elkarlanean sortutako eskultura horrek modu zuzenagoan jorratzen ditu Bigarren Mundu Gerran jatorri japoniarreko pertsonen lege kanpoko itxialdiarekin lotutako istorio pertsonalak eta kolektiboak.

“Bizitzak marraztu egiten du”: Lorategitik, 1980–2000 hamarkadak

Bere ibilbidean zehar, Ruth Asawak behin eta berriro heldu ohi zion landareak eta loreak irudikatzeko lanari. Hartara, lirio, hortentsia, urrelili eta bere lorategiko beste espezie batzuen formak marrazten zituen marrazki-koadernoetan eta paper gaineko obretan. Berarentzat, naturaletik marraztea behaketa-ariketa bat baino zerbait gehiago zen: balio bat bihurtu zen berez, eta munduarekin eta orainarekin harremanetan egoteko modu bat. “Bizitzak marraztu egiten du” idatzi zuen behin, inguruko gertaerek eta objektuek bere jardun artistikoa nola zehaztu zuten adierazteko.

1985ean Asawari lupusa diagnostikatu zioten. Ia urtebetez, bere ahalmen fisikoak nabarmen murriztu ziren, baina bere horretan jarraitu zuen bere ahalmen sortzaileak. Bere ibilbidearen azken hamarkadetan, plastikaren arloko bere obraren zati handi bat marrazki botanikoak izan ziren, eta horietako batzuk atal honetan biltzen dira. Lan intimo horiek —batzuk errealismo apartekoak, beste batzuk abstraktuagoak— eskuzabaltasun-keinu batetik abiatu ohi ziren: Asawak lagun eta senideengandik opari jasotzen zituen landareak, izenburu askotan agertzen direnak, besteak beste, *Albertek oparitutako lorategiko lore-sorta* (*Albert's Bouquet from the Garden*, 1999) edo *Adamek oparitutako San Valentin eguneko lore-sorta* (*Valentine*

Bouquet from Adam, 1991) —azken horrek bere semeari egiten dio aipamen, azken urteetan gurasoen loreak zaindu ohi zituenari—. Inguratzen zuen mundu naturala erregistratzeko eguneroko lanaren bidez, Asawak ingurune hori partekatzen zuen komunitate zabala dokumentatu zuen, baita denboraren joana ere.

Noe Valley, 1960–2000 hamarkadak

Ruth Asawari, Albert Lanierri eta haien sei seme-alabei —Xavier, Aiko, Hudson, Adam, Addie eta Paul— txikiak geratu zitzaizkien San Frantziskon bizi izan ziren hiru etxeak. 1960an, senar-emazteak etxe handi bat erosi zuten Noe Valleyn, orduan “langile-auzo txiki eta lasai bat”, artistaren hitzetan. Etxea 1908an eraikitakoa zen, eta Walter Rattcliffek eta Alfred Jacobsek diseinatu, Bernard Maybecken lorratzari jarraituz: Berkeleyko Kaliforniako Unibertsitateko irakasle ospetsua, XX. mendearen hasieran eskualdean Arts and Crafts mugimendua bultzatu zuena. Etxearen kanpoaldea, zedrozko teilaz estalia, harmoniaz integratzen zen ingurunean, eta sukaldearen ondoan zegoen terrazak jariakortasunez konektatzen zituen barneko eta kanpoko espazioak.

Oro har, etxearen diseinuak bizimodu lasai eta eroso iradokitzen zuen. Lanierrek urte oso bat eman zuen etxebizitza eraberritzen —Asawarentzako tailer bat eta logela gehigarriak prestatzeko lurraren indusketa barne— familia 1961eko udazkenean hara joan aurretik. Asawak ate monumental batzuk sortu zituen sarrerarako, atal honetan ikus daitezkeenak. Familiak galtzada-harrizko bidexkak eraiki zituen San Frantziskoko hondartzetan jasotako harriekin, eta loreen, usain-belarren eta barazkien parterreak landatu zituen, artistari bere marrazkietarako etengabeko inspirazio-iturri gisa balio izan ziotenak. Era berean, 1966 eta 2000 bitartean, Asawak senide, lagun eta lankideen aurpegiak ehunka molde egin zituen —horietako batzuk hemen ikusgai— eta Noe Valleyko etxean sartu eta atera ibiltzen ziren pertsonen benetako erregistroa osatzen dute.

“Etxea dut estudio, lehen eta orain”

Ruth Asawaren adierazpen ospetsuak, “Nire etxea nire estudioa zen eta da oraindik ere”, familiaren egunerokoa eta sorkuntza artistikoa modu organikoan integratzeko bere filosofia laburbiltzen du. Zentzu horretan, San Frantziskoko bere etxea artea arnasten zen espazio bizia bihurtu zen, bere familia, bere proiektuak eta alantokiko egindako bere eskultura zintzilikari ezagunak bertan zirela beti. Printzipio horretan oinarrituta, areto honetan, Asawak bere ibilbidearen une desberdinetan eta baliabide desberdinekin egindako lanak biltzen dira, bere bizitza osoko lagunek egindako piezekin batera, bere jardun artistiko mugagabearen testigantza emateko.

Noe Valleyko Asawa-Lanier etxearen bihotza egongela handia zen; bertako leihoak hegoaldera begira zeuden, eta bost metro eta erdiko altuera bikoitzeko zuen sabaia, gelari katedral itxura ematen zionak. Espazioa hainbat objektu betetzen zuten, artistak bere seme-alaben eta bisitarien artean sustatzen zuen etengabeko sormen-jardueraren erakusgarri. Hormetan, Josef Albers bezalako lagunen lanak zeuden, eta apalategietan, berriz, Marguerite Wildenhain zeramikak eta arte-liburuak. Egongelaren ezaugarriak bereizgarriena Asawaren alantokiko eskultura-multzo ikusgarria zen, sabaiko habeetatik zintzilik.

Etxe barruan edo kanpoan, Asawak ez zion inoiz lan egiteari uzten: bere ingurua zirriborratzen eta marrazten, etorkizuneko eskulturak prestatzeko alantokiko kiribiltzen edo lotzen, origami-piezek egiteko papera tolestean,

eta beste artista, hezitzaile eta artearen defendatzaileei harrera egiten, proiektu berrietan lankidetzan jarraitzeko.

KATALOGOA

Erakusketarekin batera, ilustrazio ugariz hornitutako katalogo bat editatuko da, erakusketako komisario Janet Bishop, Cara Manes eta Geaninne Gutiérrez-Guimarãesen saiakerekin eta Dominika Tylczen kronologia batekin, Asawak sei hamarkadan zehar jorratutako ibilbidea, aukera berrien bila egindako lan etengabea eta bere hiztegi artistiko berezia jasotzen dituen.

DIDAKTIKA

Museoaren Didaktika programak hezkuntza-guneak eta eduki digitalak eskaintzen ditu erakusketen osagarri izateko eta publikoari ikusgai dauden artelanak balioesteko tresnak eta baliabideak eskaintzeko.

Oraingo honetan, Didaktika Ruth Asawa (Norwalk, Kalifornia, AEB, 1926 – San Frantzisko, Kalifornia, AEB, 2013) artistari eskainia dago, baita artearen bidezko hezkuntzaren alde hark egindako etengabeko apustuari ere, zuzenean lotutakoa bai jasangarritasunari bai komunitatearekiko konpromisoari. 1960 eta 1970eko hamarkadetan, Asawak zabaldu egin zuen bere praktika artistikoa, eta San Frantziskoko komunitatera eraman zuen, artelan publikoen eta eskolekin egindako jardueren bidez. Testuek, irudiek, dokumentuek eta artistaren bizitza eta obra bere ingurunean kokatuta aztertzen dituen bideoak ikuspegi intimoa eskaintzen dute Asawa gizartean inplikatu zen moduaz, pedagogiaren, arte-hezkuntzaren eta balio zibikoen defentsaren bitartez.

Jarduerak

Inaugurazio-hitzaldia (martxoak 17)

Erakusketaren komisario Janet Bishop —Arte-arduradun nagusia, 'Thomas Weisel Family', SFMOMA— eta Cara Manes —Arte-arduradun elkartua, Pintura eta Eskultura Departamentua, MoMA— eta Geaninne Gutierrez-Guimarães —Arte-arduraduna, Guggenheim Bilbao Museoa— Ruth Asawaren jardun artistikoari buruz arituko dira solasean.

Museoaren Lagunentzako jarduerak

Gainera, Guggenheim Bilbao Museoaren Lagunek erakusketa bakoitzarekin lotutako bisita eta jarduera gehigarrietan parte hartzeko aukera dute.

Soirée, Matinée (martxoak 16 eta 17)

Museoaren Lagunentzako bisita eskusiboak erakusketaren komisarioekin, publikoari ireki aurretik. Nazioarteko eta Ohorezko Kideentzat.

Lagunartean (apirilak 16)

Bisita gidatua erakusketara eta jarraian bazkaria Bistró Guggenheim Bilbaon.



Berariazko bisitak (apirilak 21, 24 eta 26)

Taldeko bisita gidatuak erakusketara.

Sakonean (apirilak 14)

Erakusketa testuinguruan kokatzeko talde txikitan egiten diren solasaldiak, eta bisita gidatua jarraian.

360° murgilketak (maiatzak 7)

Erakusketa ezagutzeko online bisita birtual gidatuak, doan eta zuzenean, Museoko Hezkuntza Digitaleko zuzendariorde Marta Arzaken eskutik.

<https://www.guggenheim-bilbao.eus/en/museum-members>

Azaleko irudia:

Ruth Asawa

Titulurik gabea (S.046a–d, Lau forma bi lobuludunez osatutako multzo esekia) [*Untitled* (S.046a–d, Hanging Group of Four, Two-Lobed Forms)], 1961. Kobrezko eta letoizko alanbrea

(a): 152,4 × 43,2 × 17,8 cm; (b): 53,3 × 30,5 × 30,5 cm; (c): 81,3 × 33 × 33 cm; (d): 104,1 × 40,6 × 40,6 cm. Bilduma: Diana

Nelson eta John Atwater. Agindutako dohaintza: San Francisco Museum of Modern Art;

© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner; argazkia: Laurence Cuneo

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

PRENTSAK ERABILTZEKO IRUDIAK

Ruth Asawa: Atzerabegirakoa

Museo Guggenheim Bilbao

Prentsarako online irudien zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-atalean (prensa.guggenheim-bilbao.eus) kazetariak aukera dute bai erakusketen bai eraikinen bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko.

- Dosier honetan ematen diren irudiak *Ruth Asawa: Atzerabegirakoa* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabili behar dira. Erakusketa 2026ko martxoaren 19tik irailaren 13ra bitartean egongo da publikoarentzat zabalik.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gainjartzerik eta manipulaziorik gabe. Erreproduzioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, artelanaren izenburua eta data, jabea, copyrighten titularra eta argazkiaren kredituak.
- Webean argitaratutako irudi guztiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri egokien bitartez.
- Irudi orok mila pixeleko bereizmena izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Online argitalpenean, fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin izango da deskargatu.
- Irudiak ezin dira transferitu hirugarren bati ez eta datu-base batera ere.
- Azaletarako irudiak erabiltzeak kostu bat ekar dezake, eta alde zurretik artelanaren copyrighten jabearen eta titularraren baimena behar izango da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Komunikazio eta Marketin Sailarekin, telefono-zenbaki honetan +34 944 359 008) edo posta-elektronikoko helbide honetan media@guggenheim-bilbao.eus

Ruth Asawa

Titulurik gabea (BMC.52, Dantzariak) [*Untitled* (BMC.52, Dancers)], ca. 1948–49

Olio-pintura paper gainean, 48,3 × 30,5 cm; Bilduma pribatua

© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner; argazkia eskaintza: Fine Arts Museums of San Francisco



Ruth Asawa

Titulurik gabea (BMC.58, Meandroa – Lerro kurbatuak) [*Untitled* (BMC.58, Meander – Curved Lines)], ca. 1948; Tinta paper gainean, 41,9 × 55,9 cm, Bilduma pribatua

© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner; argazkia eskaintza: Fine Arts Museums of San Francisco



Ruth Asawa

Titulurik gabea (S.363, Saski beregaina) [*Untitled* (S.363, Freestanding Basket)], ca. 1948

Kobrezko alanbrea, 11,4 × 19,1 × 19,7 cm; Asheville Art Museum, Ipar Carolina. Black Mountain College Collection. Museoak eskuratua honen dirulaguntzarekin: 2010 Collectors' Circle, eta honen funts gehigarriekin: Frances Myers

© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner; argazkia eskaintza: Christie's




Ruth Asawa

Titulurik gabea (S.427, Bost geruzako formaren baitako forma jarraitu, eseki, lobulubakarra) [*Untitled* (S.427, Hanging Single-Lobed, Five-Layered Continuous Form within a Form)], 1953; Letoizko alanbrea, 45,7 × 71,1 × 71,1 cm; Bilduma: Don Kaul eta Barbara Bluhm-Kaul, Chicago
© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner; argazkia: Maris Hutchinson, eskaintza: David Zwirner




Ruth Asawa

Titulurik gabea (S.797, Hiru geruzako formaren baitako forma jarraitu, eseki, bi lobuluduna) [*Untitled* (S.797, Hanging Two-Lobed, Three-Layered Continuous Form within a Form)], ca. 1954. Altzairuzko alanbrea, 49,5 × 38,7 × 38,7 cm; Bilduma pribatua
© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner



Ruth Asawa

Titulurik gabea (AB.029, Formaren baitako forma jarraitua [*Untitled* (AB.029, Continuous Form within a Form)], 1956; Akrilikoa Masonite gainean, 83,8 × 109,2 cm; Bilduma pribatua
© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner



Ruth Asawa

Titulurik gabea (ZP.16B, Alanbre kiribilduz egindako hamabi eskultura-forma) [*Untitled* (ZP.16B, Twelve Looped-Wire Sculptural Forms)], ca. 1950eko hamarkadaren erdialde-bukaera; Trama-orria kartoi zurrun gainean, 25,4 × 61 cm; Bilduma pribatua
© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner; argazkia: James Paonessa




Ruth Asawa

Titulurik gabea (S.046a–d, Lau forma bi lobuludunez osatutako multzo esekia [*Untitled* (S.046a–d, Hanging Group of Four, Two-Lobed Forms)], 1961
Kobrezko eta letoizko alanbrea, (a): 152,4 × 43,2 × 17,8 cm; (b): 53,3 × 30,5 × 30,5 cm; (c): 81,3 × 33 × 33 cm; (d): 104,1 × 40,6 × 40,6 cm
Bilduma: Nelson eta John Atwater. Agindutako dohaintza: San Francisco Museum of Modern Art
© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner; argazkia: Laurence Cuneo



Ruth Asawa

Titulurik gabea (S.433, Alboz elkartutako bederatzi forma hiperboliko, ireki, eseki) [*Untitled* (S.433, Hanging Nine Open Hyperbolic Shapes Joined Laterally)], ca. 1958
Kobrezko alanbrea, 193 × 38,1 × 38,1 cm; William Roth Estate
© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner; argazkia: Laurence Cuneo



Ruth Asawa


Mitxoleta (TAM.1479) [*Poppy* (TAM.1479)], 1965
Litografia, 76,4 × 52,2 cm; Inprimaketa eta argitalpena: Tamarind Lithography Workshop, Los Angeles; Inprimatzailea: Walter Gabrielson. Ed.: 20
The Museum of Modern Art, New York. Honen dohaintza: Kleiner, Bell & Co.
© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner; argazkiaren © 2015 MoMA, NY



Ruth Asawa

Titulurik gabea (S.184, Naturan oinarritutako, alanbre lotuz egindako, zurtoin bakarreko forma eseki adar aniztuna) [*Untitled* (S.184, Hanging Tied-Wire, Single-Stem, Multi-Branched Form Based on Nature)], ca. 1962;

Altzairu galvanizatuzko alanbrea, 76,2 × 101,6 × 101,6 cm; Bilduma: Diana Nelson eta John Atwater
© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner; argazkia: Laurence Cuneo



Ruth Asawa

Titulurik gabea (S.451, Naturan oinarritutako, alanbre lotuz egindako, erdigune irekidun hormarako forma sei adarduna) [*Untitled* (S.451, Wall-Mounted Tied-Wire, Open-Center, Six-Branched Form Based on Nature)], ca. 1965;

Letoizko eta kobrezko alanbrea, 63,5 × 73,7 × 19,1 cm; Bilduma pribatua

© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner; argazkia eskaintza: David Zwirner



Ruth Asawa

Titulurik gabea (SD.017, Erdian pentagono irekia duen alanbre lotuz egindako eskulturaren marrazkia) [*Untitled* (SD.017, Tied-Wire Sculpture Drawing with Open Pentagon in Center)], ca. 1980ko hamarkada–1990eko hamarkadaren erdialdea

Tinta paper gainean, 46,4 × 66 cm; Bilduma pribatua

© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner; argazkia: James Paonessa



Ruth Asawa

Adamek oparitutako San Valentin eguneko lore-sorta (PF.555) [Valentine Bouquet from Adam (PF.555)], 1991; Tinta paper gainean, 31,8 × 58,4 cm; Bilduma pribatua

© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza David Zwirner; argazkia: James Paonessa



Ruth Asawa artista alanbrezko eskulturak egiten, Kalifornia, AEB, 1954ko azaroa; irudia: Nat Farbman/The LIFE Picture Collection/Shutterstock; artelanaren

© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner



Artista eta eskultore japoniar-estatubatuarraren erretratua, diseinu bat zirriborratzen ari dela, 1954; irudia: Nat Farbman/The LIFE Picture Collection/Shutterstock; artelanaren

© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner



Ruth Asawa Addie eta Paul seme-alabekin *Ateak* (S.528, Sekuoia-zur landuzko atea Ruth Asawaren etxerako) [*Doors* (S.528, Carved Redwood Doors for Ruth Asawa's Home)], ca. 1965, lanaren aurrean. Argazkia: Joan Pearson Watkins; artelanaren

© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner



Ruth Asawaren etxeko egongela Noe Valleyn, San Frantzisko, 1969
Argazkia: Rondal Partridge; argazkiaren © 2026 Rondal Partridge Archives;
artelanaren © 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner



Ruth Asawa (ezkerretik bigarrena) erakusketako bisitariekin, *Ruth Asawa: A Retrospective View*, San Francisco Museum of Art (egun SFMOMA), 1973
© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner; argazkia: Laurence Cuneo



Ruth Asawa eta bere biloba *Japoniar-estatubatuarentzako barneratze-esparruen oroimen-monumentuan* [*Japanese American Internment Memorial* (PC.011)], 1990–94, San Jose hiriaren enkargua; 300 South First Street, San Jose
© 2026 Ruth Asawa Lanier, Inc., eskaintza: David Zwirner; argazkia: Laurence Cuneo

